

DONOSTIAKO UDALA. Elorza eta San Gil pozik agertu dira, baina elkarrekin gobernatzea «zaila» dela adierazi dute

Aurrekontuen aurreakordioa onartuta, krisia konpondu dute PSE-EEK eta PPK

Gobernu Batzordea bildu aurretik hitzartu zituzten 12.000 milioi pezetako diru kontuak


Xabin Makazaga | DONOSTIA

2002. urteko aurrekontuen aurreproiektua hitzartu, eta PSEk eta PPK konpondutzat jo dute «oraingoz» Donostiako Udaleko krisia. Gobernu Batzordean onartu ziren kontuak, atzo, baina aurretik lortu zuten akordioa —ordubeteko bilera egin zuten— udal gobernuko bi alderdiek. Odon Elorza alkatea (PSE-EE) eta Maria San Gil alkateordea (PP) pozik azaldu ziren; baina, zauriak itxi ez diren seinale, elkarrekin gobernatzea «zaila» dela esan zuten biek.

12.000 milioi pezeta inguruko aurrekontuak izango ditu Donostiako Udalak. Odon Elorzak nabarmendu zuenez, PSE-EEK proposatu eta PPK atzera bota zituen kontuen eta atzo onartu zituzten artean, inbertsiotan 176 milioiko alde eta PPK kudeatzen dituen sailentzat 340 milioi gehiago daude. «Horixe izan da iskanbila guztia. Aztertu dezatela herritarrek hainbeste zalaparta ateratzeko motiborik ba ote zen». Krisiaren benetako arrazoiak «etxe honetatik kanpoko hainbat politikarik» azaldu beharko lituzketeela esan zuen Donostiako alkateak.

Aurrekontuetan eginiko aldaketak «oso urriak» izan direla esan zuen Elorzak: «Nabarmen ezkerrekoak dira, eta erabat pozik nago horregatik». Aurreko astean PPKo ordezkariak kargugabetzeko dekretua eskatzean, «arreta» deitu nahi izan zela esan zuen: «Abuztu amaieratik zuten kontuen zirriborroa, eta ez dute aste hau arte aztertu nahi izan».

Maria San Gil «poztasun irrifar zabalarekin» azaldu zen atzo hedabideen aurrean: «Benetan zoriontsu gaude PPKn. Izan ere, oso aste gogorra izan da, eta



JUAN HERRERO / EFE
Odon Elorza alkatea, aurrekontuen aurreproiektua erakusten, akordioa lortu ostean.

gure asmoa akordiora heltzea izan da beti; bagenekien PSE-EEekin elkarbizitza zaila dela, eta biek etsi beharko genuela».

Akordioa «asmo onei» esker lortu dutela esan zuen San Gilek: «Ez du merezi nork etsi duen esatea». Aurrekontuetako aldaketei buruz, «gure taldearen borondate izugarria» agerian geratu dela adierazi zuen PPKo alkateordeak. 12.000 milioiko kontuak onartu arren, kopuru hori «handitu» eta «zuzen» banatzeko aukera nabarmendu zuen San Gilek. Popularrak udal kutzara diru sarrera handiagoa ekarriko lukeen hirigintza operazio bat aurreikusten baitute.

Gobernu akordioaren etorkizunari buruz, Elorzak esan zuen «bide onean» direla; baina inoiz ezin dela esan «zauriak guztiz itxita» direnik. San Gilek, berriz, PSE-PP udal akordioak «aurrea egin behar» duela esan zuen: «Eta hobe da irrifar batekin egitea haserretuta baino».



JUAN HERRERO / EFE
Maria San Gil alkateordea, pozarren, bilera osteko agerraldian.

ERREAKZIOAK

BEGOÑA ERRAZTI (EA)

«PSE-EE erabat PPren mende dagoela erakutsi du Donostiako krisiak»

«Donostiako krisiak oso argi erakutsi du PSE-EE erabat PPren mende dagoela, eta, noski, guztia Madrildik ari dela mugitzen. Terrorismoaren aurkako itun famatu horrek zer ikusi handiagoa du nazionalismoaren kontrako itun batekin, bi alderdi horien botere banaketarekin, gauzak dauden bezala jarrai dezaten. Desadostasuna irudikatu nahi izan dute, baina inork ez die sinesten. Dena lotuta dute, eta ondo lotuta».

JAIME MAYOR OREJA (PP)

«Konstituzioan sinesten dugunoi konfiantza eman digu akordioak»

«Donostiako krisia konpontzea ona da Gipuzkoarentzat, ona Euskal Herrirarentzat eta ona Espainiarentzat. Konstituzioan sinesten dugunoi konfiantza ematen digu, PPren eta PSOeren arteko loturak indartzen baititu, arazo jakinetatik gaindi. Egin beharrekoa egin da».

MANUEL HUERTAS (PSE-EE)

«Konponketak berak erakusten du krisia udal alorrekoa zela»

«Donostiako krisia udal alorrekoa zela, eta ez politikoa, konponketak berak erakusten du, udaletxean konpondu baitute. Poztekoa da».

JAVIER ARENAS (PP)

«San Gilek ahalegin izugarria egin du»

«Akordioak poztu egin nau. Maria San Gil zoriondu egin nahi dut, ahalegin izugarria egin baitu akordiora iristeko. Euskal Herrian beti defenditu ditugu Konstituzioaren eta Estatutuaren aldeko alderdien arteko akordioak».

BERAko UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERA

UDAL ERAIKIAK GARBITZEKO KONTRATUA

- **Kontratuaren xedea:** Udal eraikiak garbitzeko lanak.
- **Esleipen modua:** Prozedura irekia, lehiaketaren bidez.
- **Kontrata aurrekontua:** 12.500.000 Pta. / 75.026,51 euro (BEZ barne).
- **Proposamenak aurkeztea:** Iragarri hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta ondoko 27. egun naturala arte. Orduak: 9:00etatik 13:00etara. Azken eguna larunbata suertatzen bada, astelehenaraino luzatuko da.
- **Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea:** Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta ondoko 7. lan egunean. Egun hau larunbata suertatzen bada, ondoko astelehenean irekiko dira. Ordua: 14:30.
- **Proiektua, baldintza tekniko eta klausula administratibo** plegua eta gainerako baldintzak interesatuen eskura udal bulegoetan izanen dira.

Bera, 2001.10.04 ALKATEA, J. Goia Etxeberria

EUSKAL IRRATIEk 2 lanpostu sortuko dituzte:

ERREDAKTORE BURU lanpostua:

Ardura: Erredaktore buru lana: 3 irrati-takozko kazetari ekipoaren zuzendaritza, informazio sail amankomunen kudeantza, gaien aurrikuspena, erreportaiak...

Gaitasunak: Irrati kazetaritzako teknikak, langile ekipo kudeantza, euskara menperatu, frantsesa ulertu.

KOORDINATZAILE lanpostua:

Ardura: Elkartearen kanpo ordezkari eraman, proiektu berriak landu irratiaren garapenerako, partaidetzak negoziatu, txostenak osatu...

Gaitasunak: Euskal Herriko gizarteko eragile eta errealtate desberdinak ezagutu, euskara menperatu, frantsesa eta espainola ulertu.

Soldata: 10.609,82 L edo 1.617,46 E
Interesatuak bidali curriculumua urriaren 22rako.
Helbidea: Euskal irratia. Arnegiko bidea, 64220 Donibane Garazi.

Eibarko Udala

IRAGARKIA

Gobernu Batzordeak 2001eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Blas Etxeberria 39. EIUren, edo Etxebizitzetarako Iharduketa Unitatearen Xehetasunezko Azterlanaren Aldaketari hasierako onespina eman zion, Erreal Bide, S.L. etxeak aurkeztutakoa izanik.

Hiri Antolamendu eta Lurraren Jaurlaritzaren buruzko Idatzi Bateratuaren 118. Artikuluak esandakoaren arabera, jendaurrean uzten da, horren ondorioz, honako iragarri hau Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitaratu eta ondorengo hamabost egunetan espedienteaz aztertu eta bidezkoak liratekeen alegazioak egin daitezken.

Eibarren, 2001-10-15.
ALKATEAK.- Iñaki Arriola López.